



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2026WDI10007

Gaia: Internet bidezko erregistroa: IBARRAKO MERKATARIEN URTEKO DIRU LAGUNTZA -  
Registro por internet: IBARRAKO MERKATARIEN URTEKO DIRU LAGUNTZA

## ALKATE DEKRETUA

2026ko apirilaren 29an Ibarra Merkatarikari Elkarteak, bertako koordinatzailearen bitartez, 2026ko ekitaldiari dagokion diru laguntza izenduna eskatu dio Ibarra Udalari, urte osoan zehar antolatzea aurreikusten dituzten ekintzak gauzatu ahal izateko.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariaren txostena non jasotzen den 1 08.481.00.431.01 2026 aurrekontu partidan 10.000 euroko zenbatekoa erabilgarri dagoela merkatarikari elkarteari diru laguntza ematearen kontzeptupean.

Kontuan hartuta idazkariaren txostena.

Kontuan hartuta kontuhartzailearen txostena.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24. artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikulua araberako esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

## EBAZTEN DU

**LEHENA.** Onartzea Ibarra Merkatarikari Elkarteari 10.000 €-ko diru laguntza ematea, 2026 ekitaldian aurreikusten dituzten ekintzak gauzatzeko.

**BIGARRENA.** Ordaintzea zenbateko horren %70 hitzarmenaren sinadura burutu ondorengo 30 eguneko epean eta Ogasunarekiko zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainerako %30, egindako gastua justifikatzen duen kontua Alkate Dekretu bidez onartutakoan.

**HIRUGARRENA.** Ordainketak 1 08.481.00.431.01 2026 aurrekontu partidatik bideratzea.

**LAUGARRENA.** Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

**BOSGARRENA.** Ebazpen honen berri hurrengo Udalbatzan ematea.

Ibarra, sinadura digitalaren datan



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026WDI10007-Dekretua\_OR/Decreto\_GE (IBARRAKO MERKATARIEN ELKARTEA)